

## HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

### EIKA kooperatibako EUSKARA PLANA

#### INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016/05/25

- |   |  |   |
|---|--|---|
| 1 | <b>Izena</b>   | Eika Koop. E.   |
| 2 | <b>Hizkuntza</b>   | Euskara   |
| 3 | <b>Lan-arloa</b> (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...) | Sozioekonomia   |
| 4 | <b>Kontakturako helbidea edo telefonoa</b>   | <a href="mailto:euskara@eika.es">euskara@eika.es</a><br>94 61 67 732  |
| 5 | <b>Sare sozialetako kontaktuak</b> (Webgunea, Facebook, Twitter...)                | <a href="http://www.eika.eus">www.eika.eus</a><br><a href="https://www.facebook.com/eikakoop">www.facebook.com/eikakoop</a> |

#### PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIBAPENA



## 1 Praktikaren azalpena

Eika Koop.E. euskararen erabilera handia eta zabala den ingurune batean kokatuta dago, Bizkaiko Lea-Artibai eskualdean, Etxebarriko Galartza industrialdean.

MONDRAGON Korporazioko **Industri arloko Osagaien Dibisioan** gaude, eta **sutegi elektrikoentzako osagaiak** egiten ditugu:

- Bitrozeramikentzako foku irradiatzaileak
- Bitrozeramikentzako touch kontrolak
- Termostato elektrikoak
- Labe eta mikrouhinentzako erresistentzia elektrikoak

Gaur egun Eika Koop. E. **364 bazkidek** osatzen dugu, gehienok Lea-Artibai eskualdekoak edota ingurukoak.

Horregatik, **euskara pertsonen arteko komunikaziorako tresna garrantzitsua da.**

Eikan euskarak lortu duen funtzionaltasun eta erabilerearen gakoa enpresa osatzen dugun estamentu guztion inplikazio sakona eta praktikoa izan da. Horretarako ezinbestekoak izan dira egitura, baliabide, helburu, ... egokiak jartzea; azken batean, euskararen normalizazioaren plangintza eta kudeaketa egitea.

1999an martxan jarri zen Euskararen Erabilera Areagotzeko Planaren prozesua. 2000ko urtarrilean diseinu txostena aurkeztu eta planari hasiera eman genion. Errazenetik hasita helburu zehatzak landuz joan ginen: euskaraz ez zekitenei euskara ikasteko aukera eman, euskara zekitenen artean euskararen ahozko erabilera landu, enpresako paisaia linguistikoa euskaraz jarri eta idatzi arruntak eta orokorrak euskaratu. Apurka-apurka dokumentu teknikoak eta esparru informatikoa urratzen hasi ginen. Eta ondoren, enpresako lanpostu bakoitzak bete beharreko euskararen ezagutza zehaztu genuen.

Izan ere, hau da Eikak daukan misioa edo helburu nagusia: **Eika Etxebarria barruan lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izatea eta inguruan eragile moduan jardutea. Kanpo harremanetan ere euskara bultzatzea.**

Helburu nagusia betetzeko gauza izango zen **hizkuntza politika** zehaztu genuen; euskararen erabilera arautu genuen, lau arlotan sailkatuta:

- Komunikazioa:** hizkuntza paisaia, langileen arteko ahozko harremanak (harreman informala eta bilerak) eta idatzizko harremanak (zerbitzu orokorrak, produkzioa eta bilerak).
- Langile berrien kontratazioa eta barne promozioa**
- Euskararen formazio politika**
- Inbertsio berriak (aplikazio informatikoak eta produkzioarako makinak).**

Hizkuntzaren bizitzari eragiten dioten Txepetxen hiru faktoretan oinarritu gara Euskararen Erabilera Areagotzeko Plana martxan jarri genuenetik:

**Motibazioa:** hizkuntza bat ikasteko, mantentzeko eta erabiltzeko gogoia behar da.

**Ezagutza:** Logikoa den bezala, erabiltzeko hizkuntza ezagutu egin behar da, bestela, nekez erabil daitekeelako.

**Erabilera:** Esan gabe doa, ikasitakoa erabili egin behar dela. Erabiltzen ez den hizkuntzak ez baita bizi-indarrik.

Hiru faktore hauek dira, beraz, etengabe planifikatzen ditugunak, euskararen



erabilera handitu ahal izateko.

Honez gain, **kudeaketari** ere berebiziko garrantzia eman diogu, kudeaketa egokia ezinbestekoa baita planifikatutakoa gauzatu eta proiektua egoki bideratzeko.

Lortutako emaitzen erakusle da Eusko Jaurlaritzak luzatzen duen **URREZKO BIKAIN ziurtagiria** lortu izana; euskararen kalitatearen urrezko ziurtagiria bi aldiz lortu dugu, hain zuzen ere.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak 2015ean abian jarritako **EUSLAN programan** ere parte hartze dugu, gure esperientziak eta praktika onak egoera antzerakoan dauden enprekin partekatze aukera ikusten dugu EUSLANen, euskara plangintza eraberritu eta, bereziki, gure enpresetan euskara lan hizkuntza izateko urrats sendoak eta iraunkorrak ematen jarraitzeko.

Aipatu ere, Eika Talde bat dela; 3 planta dauzkagu atzerrian (Txekian, Polonian eta Mexikon) eta hizkuntza aniztasuna gure eguneroko jardunean kudeatzen ikasi dugu, hizkuntza bakoitzari dagokion funtzioa eman eta kudeatzen.

EIKA euskal gizartearen dinamismoaren emaitza da, eta argi daukagu gizarte horrenganako erantzukizunez jokatzeko dugula euskararen erabilera gure enpresan sustatzean.



## 2 Praktikaren azalpenaren laburpena

1999an martxan jarri zen Euskararen Erabilera Areagotzeko Planaren prozesua. Errazenetik hasita helburu zehatzak landuz joan ginen: euskaraz ez zekitenei euskara ikasteko aukera eman, euskara zekitenen artean euskararen ahozko erabilera landu, enpresako paisaia linguistikoa euskaraz jarri eta idatzi arruntak eta orokorrak euskaratu. Apurka-apurka dokumentu teknikoak eta esparru informatikoa urratzen hasi ginen. Eta ondoren, enpresako lanpostu bakoitzak bete beharreko euskararen ezagutza zehaztu genuen.

Izan ere, hauxe da Eikak daukan misioa edo helburu nagusia: **Eika Etxebarria barruan lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izatea eta inguruan eragile moduan jardutea. Kanpo harremanetan ere euskara bultzatzea.**

Helburu nagusia betetzeko gauza izango zen **hizkuntza politika** zehaztu genuen; euskararen erabilera arautu genuen, lau arlotan sailkatuta: Komunikazioa, kontratazioa, formazioa eta inbertsioak.

Hizkuntzaren bizitzari eragiten dioten Txepetxen hiru faktoretan oinarritu gara Euskararen Erabilera Areagotzeko Plana martxan jarri genuenetik: ezagutza, erabilera eta motibazioa. Hiru faktore hauek dira, beraz, etengabe planifikatzen ditugunak, euskararen erabilera handitu ahal izateko. Honez gain, **kudeaketari** ere berebiziko garrantzia eman diogu, kudeaketa egokia ezinbestekoa baita planifikatutakoa gauzatu eta proiektua egoki bideratzeko.

Lortutako emaitzen erakusle da Eusko Jaurlaritzak luzatzen duen **URREZKO BIKAIN ziurtagiria** lortu izana; euskararen kalitatearen urrezko ziurtagiria bi aldiz lortu dugu, hain zuzen ere.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak 2015ean abian jarritako **EUSLAN programan** ere parte hartze dugu, gure esperientziak eta praktika onak egoera antzerakoan dauden enpresekin partekatzeo aukera ikusten dugu EUSLANen, euskara plangintza eraberritu eta, bereziki, gure enpresetan euskara lan hizkuntza izateko urrats sendoak eta iraunkorrak ematen jarraitzeko.



|   |  |  |
|---|--|--|
| 3 | <b>Aurrekariak</b><br>(Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak) | <ul style="list-style-type: none"> <li>● MONDRAGONen 8. Printzipioa aintzat hartzea: "...euskara, hizkuntza nazionala den aldetik, eta euskal kulturaren bereizgarriak suspertzen laguntzea".</li> <li>● Eika Koop. E.ko estatutuetan jarritakoa aintzat hartzea: "euskara gaztelaniarekin batera hizkuntza ofizialtzat hartuko da".</li> <li>● Eika Koop. E. ingurune euskaldunean kokatuta dago eta aldi berean, bera osatzen duten bazkide eta langileen gehiengoa euskal hitzunik dira.</li> <li>● Eika Koop. E.ko langileen arteko egoera linguistikoei aurre egitea, elkarrenganako ulermena eta kohesioa erraztuz eta lortuz.</li> <li>● Eika Koop. E.ko etorkizuneko langile izango diren inguruko gazteak, euskaraz prestatuta datozela aintzat hartu eta horiei lan mundua euskaraz izateko aukera gaur egungo langileoi dagokigula kontutan izanda, Eika etorkizun horretara pausuz pausu egokitzea.</li> <li>● Eikako organo guztiek, hau da, Batzar Nagusia, Kontseilu Errektorea, Zuzendaritza Batzordea, Gerentzia, Kontseilu Soziala eta Zaintza Batzordeak euskararen normalizazioaren aldeko apustu sendoa egitea.</li> <li>● Eika Koop.E.an kanpo harremanetan (bezero, hornitzaile, erakunde,...) euskararen normalizazioan eragile, bultzatzaile izatea.</li> </ul> |
| 4 | <b>Helburuak</b>   | Eika Etxebarria barruan lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izatea eta inguruan eragile moduan jardutea. Kanpo harremanetan ere euskara bultzatzea.   |
| 5 | <b>Eragin esparru nagusia eta albokoak</b>   | <b>-Eragin esparru nagusia:</b> Eika Etxebarriako langile guztiak<br><b>-Albokoak:</b> Eskualdeko enpresak, Euskal Herriko bezeroak, hornitzaileak, administrazioa, finantza erakundeak, bestelako erakundeak...   |
| 6 | <b>Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak</b>                                    | Mondragon Korporazioa (enpresa taldea), Bizkaiko Foru Aldundia (administrazioa), Eusko Jaurjaritza (administrazioa). Aholkularitza teknikoak: EMUN Koop.E  |
| 7 | <b>Inplementazio-epea</b>  | Eikako Euskararen Erabilera Areagotzeko Plana 2000tik dago indarrean: lau urtero ziklo estrategiko bakoitzeko helburu nagusiak zehaztu dira eta urtero dagozkien ekintzak planifikatu eta bideratu dira.   |

## INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

|   |  |  |
|---|--|--|
| 8 | <b>Hedapena</b> (eragiten dien pertsona kopurua, barne-kanpo hedapena...)    | Eika Etxebarriako langile guztiak. Euskal Herriko bezeroak, hornitzaileak, administrazioa, finantza erakundeak, bestelako erakundeak. Eikan lanera sartzen diren langile berriak (kontratazioaren bidez) |
| 9 | <b>Inbertsioa</b> (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...) | Baliabide pertsonalak: Euskara Batzorde baten eta enpresako arduradun baten dedikazioa + EMUN aholkularitza enpresako teknikari baten egun erdiko lan-jarduna.   |



|    |   |   |
|----|---|---|
| 10 | <b>Lortutako emaitzak</b>                       | <b>Gaur egungo emaitzak</b> (kontutan izanda 1999an Eikan gaztelania zela nagusi):<br>- <b>Euskararen ahozko erabilera:</b> % 69 (%83k daki euskaraz)<br>- <b>Idatzizko erabilera: e-mailen</b> %85 euskaraz egiten dira. <b>Bilerak ahoz:</b> %69 euskaraz egiten dira. <b>Bilerak idatziz (deiak, aktak):</b> %66 euskaraz egiten dira.<br>- <b>Tailerreko emaitzak</b> (kontutan izanda tailerrean 300etik gora makina dagoela eta Eikako langilegoaren %75k bertan lan egiten duela): tailerreko makinaren botoien %90a eta pantailen %75a euskaraz dauzkagu. |
| 11 | <b>Dokumentazioa erreferentziazko materiala</b> |   |
| 12 | <b>Aurkezpen bideoa</b>                         |   |
| 13 | <b>Intereseko informazio gehigarrik</b>         |   |

